



## Andoingo Udala

---

### **ALKATETZAREN 643/2019** **ZENBAKIKO EBAZPENA**

Gertatua baita, behin dagokion administrazio espedientea izapidetu ondoren, Udalbatzak, 2018ko uztailearen 19an egindako osoko batzaraldian, onartu egin zuela behin betiko izaeraz Andoingo Hirigintza Antolakuntzako Plan Nagusian, HEE-12 Zumea deiturikoan - Zumea, 6/8- aldaketa zehatza egiteko testu bateratua. Behin betiko onarpenari dagokion erabakia eta hirigintza arautegiak argitara eman ziren 2018ko abuztuaren 6ko 150. zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Gertatua baita Andoingo HAPNaren aldaketa zehatzeko agirian jasotako Eragin Akustikoari buruzko Azterketa, HEE-12 Zumea deituriko 12.3-HE-ari dagokiona, Alejandro Sainz de la Encina eta Juan Ignacio Cuevas Ramos arkitekto jaunek idatzitakoak, agerian jartzen duela agiri horretan ez direla betetzen kanpoaldeko hots edo akustika kalitateari dagozkion helburuak eta, horrenbestez, bidezko da eremu hori Babes Akustiko Bereziko Ingurune izendatzea.

Gertatua baita 2019ko iraileko datuz 12.3. HE azpierzemuko Babes Akustiko Bereziko Inguruneari dagokion Ingurune Plangintza Akustikoa idatzi dena.

Aintzat izanik zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 legeko 25. artikulua kutsadura akustikoa zuzentzeko bitartekoen artean jasotzen duela kalitate akustikoaren helburuak betetzen ez dituzten ingurune akustikoei dagokienez Babes Akustiko Bereziko Inguru izendatu ahal izatea, eta, horretarako, beharrezkoa dela gune horietarako plangintza bereziak osatzea ingurunean apurka-apurka hobekuntza akustikoa gerta dadin kalitate akustikoari dagozkion helburuetara iritsi arte.

Aintzat izanik Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko zarata kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuko 36. artikulua

### **RESOLUCION DE ALCALDIA N°** **643/2019**

Resultando que, una vez tramitado el correspondiente expediente administrativo, el Pleno de la Corporación en sesión celebrada con fecha 19 de julio de 2018 aprobó con carácter definitivo el texto refundido de la Modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Andoain en el ámbito AIU-12 Zumea (Zumea 6-8). El acuerdo de aprobación definitiva y la normativa urbanística fueron publicados en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 150 de fecha 6 de agosto de 2018.

Resultando que el Estudio de Impacto Acústico incluido en el documento de Modificación puntual del PGOU de Andoain, referido al ámbito AD-12.3 del AIU-12 Zumea, elaborado por los Arquitectos D. Alejandro Sainz de la Encina y D. Juan Ignacio Cuevas Ramos, pone de manifiesto que en el mismo se incumplen los objetivos de calidad acústica en el exterior, por lo que procede declarar la correspondiente Zona de Protección Acústica Especial.

Resultando que con fecha septiembre de 2019, se ha redactado el Plan Zonal Acústico de la Zona de Protección Acústica Especial del subámbito AD-12.3.

Considerando que el artículo 25 de la Ley 37/2003, de 17 de noviembre, del Ruido incluye entre los instrumentos de corrección de la contaminación acústica la declaración de Zonas de Protección Acústica Especial de aquellas áreas acústicas en las que se incumplan los objetivos de calidad acústica, para las que se deben elaborar planes zonales específicos para la mejora acústica progresiva del medio ambiente, hasta alcanzar los objetivos de calidad acústica.

Considerando que el artículo 36 del Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País



## Andoingo Udala

---

agintzen duela ezin izango dela etorkizunean hirigintza garapenik egin kanpo edo eguraspeko ingurunean kalitate akustikoari dagozkion helburuak betetzen ez dituzten guneetan, 43 eta 45. artikuluetan xedatuaren kalterik gabe.

Aintzat hartuz aipatu dekretuko 43. artikulua agintzen duela ezin izango zaiola etxebizitza, eritetxe, hezkuntza edo kulturagintza helburu duten eraikinak eraikitzeke lizentziarik eman, lizentzia emateko unean kanpoaldeko edo eguraspeko kalitate akustikoari dagozkion helburuak betetzen ez badira, salbuespeneko arrazoiak tartean direnean izan ezik, herrik oonurakoak eta behar bezala zurututakoak, edota aipatu dekretuko 45. artikuluan zehazturiko balizkoetan babes akustiko bereziko gune edo alderdiak direnean. Nolanahi ere, barrualdeko lekuetan helburuak bete egin beharko dira eta, horretarako, udalek kontu horri dagozkion txosten zurigarriak egin beharko dituzte dagokion lizentzia ematea erabaki aurretik, neurri zuzentzaileak ipiniz kanpoaldeko ingurunea babestu ahal izateko (zentzu berean xedatzen du Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legeko 20. artikulua).

Aintzat hartuz dekretu bereko 45. artikulua agintzen duela kalitate akustikoko helburuak betetzen ez dituzten guneetan, sortzaile akustiko direnek ezargarri diren mugako baloreak bete arren, babes akustiko bereziko alderdi izendatuak izango dira hurrengo agintarauei jarraiki: a) jarraian adierazitako egokieraren bat gertatzen denean etorkizuneko hirigintza garapenak huts-hutsik Babes Akustiko Bereziko Ingurune izendatu ahal izango dira, eta beti ere etorkizuneko hirigintza garapenaren Eragin Akustikoko Azterketaren esparruan neurri zuzentzaileak jasotzen baldin badira: Dekretua indarrean sartzerakoan antolaketa xehetuak hasierako onarpena jaso izana edota hirilurra berritzeko balizkoak izatea; b) Babes Akustiko Bereziko Ingurune izendatzeak gutxienez bat ekarriko du bere baitan alderdi osoa mugatzea, gune sortzaile akustikoak ezagutzea eta horiek sortzen duten emari akustikoa eta ingurunerako

Vasco, establece que no podrán ejecutarse futuros desarrollos urbanísticos en áreas donde se incumplan los objetivos de calidad acústica en el ambiente exterior, sin perjuicio de lo estipulado en los artículos 43 y 45.

Considerando que el artículo 43 del referido decreto establece que no se podrá conceder ninguna licencia de construcción de edificaciones destinadas a viviendas, usos hospitalarios, educativos o culturales, si, en el momento de concesión de la licencia, se incumplen los objetivos de calidad acústica en el exterior, salvo que existan razones excepcionales de interés público debidamente motivadas o se trate de zonas de protección acústica especial en los supuestos definidos en el artículo 45 del mismo decreto. En todo caso, deberán cumplirse los objetivos de calidad para el espacio interior para lo cual los Ayuntamientos deberán realizar informes justificativos de dicha cuestión, previa a la concesión de la correspondiente licencia, estableciendo medidas correctoras para proteger el ambiente exterior (en el mismo sentido el artículo 20 de la Ley 37/2003, de 17 de noviembre, de Ruido).

Considerando que el artículo 45 del mismo decreto establece que las áreas en las que se incumplan los objetivos de calidad acústica, aun observándose por los focos emisores acústicos los valores límites aplicables, serán declaradas zonas de protección acústica especial conforme a las siguientes prescripciones: a) Los futuros desarrollos urbanísticos sólo se podrán declarar Zona de Protección Acústica Especial, y siempre que en el marco del Estudio de Impacto Acústico del futuro desarrollo urbanístico se establezcan las medidas correctoras, si se produce alguno de los siguientes casos: que esté aprobada inicialmente la ordenación pormenorizada a la entrada en vigor del Decreto o que se trate de supuestos de renovación de suelo urbano; b) La declaración de Zona de Protección Acústica Especial contendrá como mínimo la delimitación del área, la identificación de los



## Andoaingo Udala

---

plana 46. artikuluan aurreikustako hitzetan, eta c) behin kalitate akustikoari dagozkion helburuak bete ondoren, onartu beharko da babes akustiko bereziko alderdiei ezargarri dakien araubidearen indarraldia amaitu izana.

Aintzat hartuz, Andoaingo Zarataren Mapak eta Ekintza Planak, hain zuzen ere 213/2012 Dekretuan xedatuarekin bat etorritik onarturikoen, ahalbidetu dutela kalitate akustikoko helburuak gaitzen diren alderdiak ezagutu ahal izatea eta, horrenbestez, aurreikusi dutela zein alderdi izango diren Babes Akustiko Bereziko alderdi izendatuak. Zehazki, Andoaingo Hiri Antolakuntzako Plan Nagusiaren testu bategineko 12.3 GE eremua, Andoaingo Hots Ingurumena Hobetzeko Planeko edo Ekintza Planeko 3. zenbakiko Babes Akustiko Bereziko Alderdiaren barruan gelditzen da.

Iritzirik, Andoaingo HAPNean aldaketa jakin bat egiteko agirian sartuta dagoen Eragin Akustikoko Azterketak, «Zumea» 12 HEEko 12.3. GEari dagokionak, zeina baita Alejandro Sainz de la Encina eta Juan Ignacio Cuevas Ramos arkitektoek egindakoa, agerian jartzen duela bertan kanpoaldeko kalitate akustikoko helburuak ez direla betetzen, eta eragin akustiko gehien sortu eta ezagutzen diren guneak direla inguruan datorren bide sarearekin zerikusirik dutenak (N-1 errepidea eta udalerriko bide sare), eta, beraz, proposatzen dela Kale Berrian ekitea, 12.3 GE azpierrezatik kanpo, bermatu ahal izateko bertan zirkulatzeko benetako abiadura orduko 30 km-koaren azpitik dagoela. Horretarako, har litezkeen neurri gisa jasotzen dira sakanguneak ipintzea aipatu kalean benetako zirkulazio abiadura orduko 30 km-koa izan dadin lortzeko eta kalea berritartzea, berritartze horretan jasoz trafikoa epeltzeko neurriak, iragatea motelduko dutenak, nola baita zarata murrizten duten asfaltoak erabiltzea ere.

focos emisores acústicos y su contribución acústica y un plan zonal en los términos previstos en el artículo 46 y c) Una vez alcanzados los objetivos de calidad acústica, se declarará el cese del régimen aplicable a las zonas de protección acústica especial.

Considerando que el Mapa de Ruido de Andoaín y el Plan de Acción, aprobados de acuerdo con lo establecido en el Decreto 213/2012, han permitido identificar las zonas en las que se superan los objetivos de calidad acústica y, en consecuencia, ha previsto las zonas sobre las que se prevé declarar las correspondientes Zonas de Protección Acústica Especial. En concreto, el ámbito AD-12.3 del texto refundido del Plan General de Ordenación Urbana de Andoaín queda incluido dentro de la Zona de Protección Acústica Especial nº 3 del Plan de Acción o Plan de Mejora del Ambiente Sonoro de Andoaín.

Considerando que el Estudio de Impacto Acústico incluido en el documento de Modificación puntual del PGOU de Andoaín, referido al ámbito AD-12.3 del AIU-12 “Zumea”, elaborado por los Arquitectos D. Alejandro Sainz de la Encina y D. Juan Ignacio Cuevas Ramos, pone de manifiesto que en el mismo se incumplen los objetivos de calidad acústica en el exterior, siendo los focos sonoros identificados que genera mayor impacto acústico los relacionados con la red viaria existente en el entorno (N-1 y red viaria municipal), por lo que se propone actuar en Kaleberria, fuera del subámbito AD-12.3, a fin de garantizar que la velocidad real de circulación en la misma esté por debajo de los 30km/h. Para ello, se contemplan como posibles medidas a adoptar la implantación de badenes que permitan conseguir una velocidad real de 30 km/h en la citada calle y la reurbanización de la calle contemplando medidas de templado de tráfico que reduzcan la velocidad de paso, así como el empleo de asfaltos fono-reductores.



## Andoaino Udala

Iritzirik, ordea, ingurunearen ezaugarriak kontuan izanik eta baita aztertu beharreko neurriak ere, adierazten dela neurri horien guztien azterketa egin beharko dela Babes Akustiko Bereziko 3. Inguruneari (BABI) dagokion Ekintza Planaren garapen esparruan, eta hori lehentasunezko alderdi gisa izendatuta dago Andoaingo Hots Ingurumena Hobetzeko Planean. Horregatik, eta Guneko Plan Akustikoan ezin baitira hartu 12.3 GEaren kanpoalde edo eguraspean maila akustikoak hobetzeko eraginkorrak izango diren neurri zuzentzaileak, Eragin Azterketak jasotzen duen aukera da, gehigarri gisa, fatxadan isolamendua handitzeko neurri zehatzak, gutxienez bete daitezten eraikin berriaren barrualdean kalitate akustikoari dagozkion helburuak 213/2012 Dekretuko 40 eta 43. artikuluetan adierazten den guztiari jarraiki.

Iritzirik, ingurumen eragineko aipatu azterketan proposaturiko neurriak garatzearen idatzi egin dela 12-3-GE azpierzemuko Babes Akustiko Bereziko Inguruneari dagokion Guneko Plan Akustikoa.

Iritzirik, era berean, aztergai dugunari dagokionez behin eta berriro aipatzen ari garen dekretuko 45.a) artikuluan, eskaturiko betebeharrak bat datozela.

Ikusi ondoren Hirigintza eta Zerbitzuetako teknikariak 2019ko irailaren 19an egindako aldeko txostena.

Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Batzordeari jarraiki, honen bidez

### ERABAKI DUT

1.- Espedienteari hasiera ematea, Andoaingo Hirigintza Antolakuntzako Plan Nagusiaren testu bategineko Zumea HEE-12-ko 12.3 GE azpierzemua Babes Akustiko Bereziko Ingurune (BABI) izendatua izan dadin eta onartzea

Considerando que, sin embargo, teniendo en cuenta las características del entorno y el alcance de las medidas a considerar, se indica que el estudio de las mismas se deberá realizar en el marco del desarrollo del Plan de Acción correspondiente a la Zona de Protección Acústica Especial (ZPAE) nº 3, definida como zona prioritaria a declarar en el Plan de Mejora del ambiente sonoro de Andoain. Por ello, ante la imposibilidad de adoptar en el Plan Zonal Acústico medidas correctoras efectivas tendentes a mejorar los niveles acústicos en el ámbito exterior del ámbito AD-12.3, el Estudio de Impacto plantea adicionalmente el desarrollo de medidas concretas de incremento de aislamiento en fachada, para que al menos se cumplan los objetivos de calidad acústica en el interior de la futura edificación, tal como se indica en los artículos 40 y 43 del Decreto 213/2012.

Considerando que, a fin de desarrollar las medidas propuestas en el referido estudio de impacto ambiental, se ha redactado el Plan Zonal Acústico de la Zona de Protección Acústica Especial del subámbito AD-12.3.

Considerando, asimismo, que en presente caso concurren los requisitos exigidos en el artículo 45.a) del Decreto de continua referencia.

Visto el informe favorable emitido por la Técnica de Administración de Urbanismo y Servicios con fecha 19 de septiembre de 2019.

A propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras, Medio Ambiente y Zona Rural, por la presente

### RESUELVO

1.- Incoar el expediente para proceder a declarar como Zona de Protección Especial Acústica (ZPAE) el subámbito AD-12.3 del AIU-12 Zumea del texto refundido del Plan General de Ordenación Urbana de Andoain y



## Andoaingo Udala

dagokion Alderdiko Plan Akustikoa.

aprobar el correspondiente Plan Zonal Acústico.

2.- Ebazpen hau eta administrazio espedientearen jendaurrean agerian jartzea gutxienez 20 egunetan, horretarako argitara emanaz dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta egunkarietan, interesdunek aztertzeke aukera izan dezaten eta gaiari buruz egoki iritzitako alegazio guztiak aurkeztu Udal honen aurrean. Hori guztiori, bat etorri zuzenaren 18ko 27/2006 Legearen xedatuarekin, horren bidez arautzen baitira ingurumen gaitan informazioa eskuratzeari eta partaidetza publikoari dagokion eskubideak.

2.- Someter la presente resolución y el expediente administrativo a información pública durante el plazo mínimo de 20 días, mediante publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y prensa diaria, a fin de que los/as interesados/as puedan examinarlo y formular las alegaciones que estimen convenientes al respecto. Todo ello en conformidad con lo dispuesto en la Ley 27/2006, de 18 de julio, por la que se regulan los derechos de acceso a la información y participación pública en materia de medio ambiente.

3.- Ebazpen hau jakinaraztea CONSTRUCCIONES ORBERO, S.A. enpresari.

3.- Notificar la presente resolución a la empresa CONSTRUCCIONES ORBERO SA.

Hala agindu eta sinatu dut. Nire aurrean Udaleko Idazkaria, Andoainen 2019ko irailaren 26an.

Lo que dispongo y firmo, ante mi el Secretario de la Corporación, en Andoain, a 26 de septiembre de 2019.

Nire aurrean / Ante mí

**Idazkaria**  
*El Secretario*



**Alkatea**  
*La Alcaldesa*